Alcalde - Alkatea

D. Miguel de los Toyos Nazabal jauna.

Tenientes de Alcalde - Alkate Ordeak

Dña. María José Tellería Etxeberria andrea.

D. Arcadio Benitez Dávila jauna.

Dña. Esther Kareaga Olano andrea.

D. Eneko Andueza Lorenzo jauna.

D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna.

Dña. María Arrate Gallastegui Oyarzabal andrea.

D. José Luis Vallés Molero jauna.

Concejales - Zinegotziak

Dña. Ana María Rodríguez Fouz andrea.

D. Igor Aldalur Zendoia jauna.

D. Josu Cristobal Churruca jauna.

D. Gorka Novoa Aguirregomezkorta jauna.

Dña. Leire Abanzabalegui Aranguren andrea.

Dña. Nerea Castro Sánchez andrea.

Dña. Igone Lamarain Cobo andrea.

Dña. Eva Juez Garmendia andrea.

D. Iñaki Zuloaga Alberdi jauna.

Dña. María Luz Balenziaga Gisasola andrea.

D. Javier Zorrakin Berrizbeitia jauna.

Dña. Maria Carmen Larrañaga Maiztegui andrea.

Dña. Sofía Vázquez Gonçalves andrea.

Secretaria General - Idazkari Orokorra

Dña. Arantzazu Echániz Petralanda andrea.

Eibarko hirian, bi mila eta hamalauko azaroaren hogeita lauan, arratsaldeko zazpiak eta erdiak izanik, Udal Batzarra bildu zen ohiko bileran, Udaletxeko Batzar Aretoan, goian aipaturiko jaun-andreek osatua.

En la Ciudad de Eibar, a veinticuatro de noviembre de dos mil catorce y siendo las diecinueve horas treinta minutos, se reunió en sesión ordinaria el Pleno Municipal, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/as señores/as anteriormente mencionados/as.

Alkate jaunak bilerari hasiera eman dio eta eguneko aztergaiaren lehenengo atala irakurri da.

El Sr. Alcalde declara abierta la sesión y se procede a la lectura del primer punto del Orden del Día.

1. ATALA

PUNTO 1º

2014ko urriaren 27an Udalbatzak egindako bilkurari dagokion akta-zirriborroa onartzea.

Aprobación del borrador de acta correspondiente a las sesión de Pleno Municipal celebrada el 27 de octubre de 2014.

2014ko urriaren 27an bilerari zegokion akta zirriborroa botazioan jarrita, onartu egin da. Hona hemen botazioaren emaitza:

Sometido a votación el borrador de acta correspondiente a la sesión de 27 de octubre de 2014, se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak: Alkatea, Telleria Etxeberria, Benítez Dávila, Kareaga Olano, Andueza Lorenzo, Gallástegui Oyarzabal, Vallés Molero, Rodríguez Fouz, Escribano Ruiz de la Torre (PSE-EE), Juez Garmendia, Zuloaga Alberdi, Balenziaga Gisasola, Zorrakin Berrizbeitia

Votos afirmativos: Alcalde, Telleria Etxeberria, Benítez Dávila, Kareaga Olano, Andueza Lorenzo, Gallástegui Oyarzabal, Vallés Molero, Rodríguez Fouz, Escribano, Ruiz de la Torre (PSE-EE), Juez Garmendia, Zuloaga Alberdi, Balenziaga Gisasola, Zorrakin

(EAJ-PNV), Larrañaga Maiztegui, Vázquez Gonçalves (PP).

Ez dago ezezko botorik.

Abstentzioak: Aldalur Zendoia, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Castro Sánchez, Novoa Aguirregomezkorta, Lamarain Cobo (BILDU).

2. ATALA
Agiriak eta posta-bidezkoak.

Eibarko Udalak garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako emango dituen diru-laguntzak norgehiagoka prozedura bidez emateko arauak ezartzen dituzten Oinarrien 1. eta 2. artikuluak aldatzea.

- Idazkariak dio, gogoratuko den bezala, udalbatzak, 2014ko irailaren 29an egindako bilkuran,hasierako onespena eman ziola, Eibarko Udalak, garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako emango dituen diru-laguntzak norgehiagoka prozeduran bidez emateko arauak ezartzen dituzten Oinarriak aldatzeko proposamenari. Onespen espedientea urriaren 9ko GAOn

Berrizbeitia (EAJ-PNV), Larrañaga Maiztegui, Vázquez Gonçalves (PP).

Votos negativos: ninguno.

Abstenciones: Aldalur Zendoia, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Castro Sánchez, Novoa Aguirregomezkorta, Lamarain Cobo (BILDU).

PUNTO 2º
Despachos y comunicaciones.

Modificación de los artículos 1 y 2 de las Bases reguladoras para la concesión por parte del Ayuntamiento de subvenciones para la cooperación internacional al desarrollo, mediante el procedimiento de concurrencia competitiva.

- Indica la Secretaria que, como se recordará, el Pleno en sesión de 29 de septiembre de 2014 aprobó inicialmente la modificación de las Bases reguladoras para la concesión por parte del Ayuntamiento de subvenciones para la cooperación internacional al desarrollo, mediante el procedimiento de concurrencia competitiva y que, expuesto al público el expediente de

ateratako iragarkiz jendaurrean jarrita, inork ez duenez alegaziorik aurkeztu, aldaketa hori behin betiko onartua geratu da.

aprobación mediante anuncio en el BOG de 9 de octubre, no se han presentado alegaciones, por lo que ha devenido definitivamente aprobada dicha modificación.

Alkatetzaren Dekretu hauen berri eman da:

Se da cuenta de los siguientes Decretos de Alcaldía:

"ALKATETZAREN DEKRETUA

UDAL LAUGARREN KREDITU GAIKUNTZAREN AURRENEKO ESPEDIENTEA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 31. artikuluan ezarritakoari jarraituz, 2014. urteko udal aurrekontuaren kontu-sailetan izendatutako kredituak ez direnez behar adinakoak eta ondoren aipatuko diren kontzeptuei dagozkien gastuak egiteko premia eta beharra dagoenez,

HAUXE ERABAKI DUT

Udal aurrekontuaren kreditu gaikuntzaren laugarren espedientea onartzea. Hona

"DECRETO DE ALCALDIA

CUARTO EXPEDIENTE DE HABILITACION DE CREDITOS DEL PRESUPUESTO MUNICIPAL

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 31 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y considerando la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que a continuación se detallan, al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto Municipal para el Ejercicio 2014,

RESUELVO

la aprobación del cuarto expediente de Habilitación de Créditos del Presupuesto

hemen horren zenbatekoak:

Municipal, cifrado en las siguientes cantidades:

LABURPENA KAPITULUKA

RESUMEN POR CAPITULOS

I. DIRUAREN NONDIK NORAKOA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 8 | Finantza aktiboak | 164.155,92 |
| Guztira, gehikuntzak adina | | 164.155,92 |

I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Capit | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 8 | Activos financieros | 164.155,92 |
| TOTAL igual a los aumentos | | 164.155,92 |

II. KREDITUEN GEHIKUNTZA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 118.215,68 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 45.940,24 |
| Kredituen Gehikuntza guztira | | 164.155,92 |

II. CREDITOS EN AUMENTO

| CAPIT | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 1 | Gastos Personal | 118.215,68 |
| 4 | Transferencias corrientes | 45.940,24 |
| TOTAL Créditos en aumento | | 164.155,92 |

Eibarren emana, bi mila eta hamalauko urriaren hogeita zazpian.

Dado en Eibar a veintisiete de octubre de dos mil catorce.

ALKATEAK,
Miguel de los Toyos Nazabal."

EL ALCALDE,
Miguel de los Toyos Nazabal."

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

El Pleno se da por enterado.

"ALKATETZAREN DEKRETUA

"DECRETO DE ALCALDIA

2014KO UDAL AURREKONTUKO KONTU SAILEN ARTEKO TRANSFERENTZIEN HAMABOSGARREN ESPEDIENTEA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 29. artikuluak dioenari jarraituz, ondoren aipatzen diren kontzeptuei dagozkien gastuak egiteko beharra eta premia dagoenez eta 2014. urteko udal aurrekontuaren kontu-sailetan izendatutako kredituak urri geratu direnez,

HAUXE ERABAKI DUT:

Udal Aurrekontuko Kreditu transferentzien Hamabosgarren espedientea onartzea ondoren aipatzen diren zenbatekoetan:

LABURPENA KAPITULUKA

I. DIRUAREN NONDIK NORAKOA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 4 | Transferentzia arrunta | 3.885,00 |

DECIMOQUINTO EXPEDIENTE DE TRANSFERENCIAS DE CREDITO DEL PRESUPUESTO MUNICIPAL 2014.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 29 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y considerando la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que a continuación se detallan, al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto Municipal para el Ejercicio 2014,

RESUELVO:

la aprobación del Decimoquinto Expediente de Transferencias de Créditos del Presupuesto, cifrado en las siguientes cantidades:

RESUMEN POR CAPITULOS

I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Capit | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 4 | Transferencias corrientes | 3.885,00 |

Guztira gehikuntzen adina 3.885,00

II. KREDITUEN GEHIKUNTZA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 2 | Gast. ondas. arrunt eta zerb. | 3.885,00 |
| Kredituen Gehikuntza guztira | | 3.885,00 |

Eibarren emana, bi mila eta hamalauko urriaren hogeita hamaikan.

ALKATEAK,
Miguel de los Toyos Nazabal."

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

"ALKATETZAREN DEKRETUA

2014KO UDAL AURREKONTUKO KONTU SAILEN ARTEKO TRANSFERENTZIEN HAMASEIGARREN ESPEDIENTEA

"Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 29. artikuluak dioenari jarraituz, ondoren aipatzen diren kontzeptuei dagozkien gastuak egiteko beharra eta premia

Total igual a los aumentos 3.885,00

II. CRÉDITOS EN AUMENTO

| Capit | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 2 | Gtos. en B. corrient. y serv. | 3.885,00 |
| Total Créditos en aumento | | 3.885,00 |

Dado en Eibar a treinta y uno de octubre de dos mil catorce.

EL ALCALDE,
Miguel de los Toyos Nazabal."

El Pleno se da por enterado.

"DECRETO DE ALCALDIA

DECIMOSEXTO EXPEDIENTE DE TRANSFERENCIAS DE CREDITO DEL PRESUPUESTO MUNICIPAL 2014.

"De conformidad con lo dispuesto en el artículo 29 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y considerando la necesidad y urgencia de los gastos a

dagoenez eta 2014. urteko udal aurrekontuaren kontu-sailetan izendatutako kredituak urri geratu direnez,

realizar en los conceptos que a continuación se detallan, al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto Municipal para el Ejercicio 2014,

HAUXE ERABAKI DUT

RESUELVO

Udal Aurrekontuko Kreditu transferentzien Hamaseigarren espedientea onartzea ondoren aipatzen diren zenbatekoetan:

la aprobación del Decimosexto Expediente de Transferencias de Créditos del Presupuesto, cifrado en las siguientes cantidades:

LABURPENA KAPITULUKA

RESUMEN POR CAPITULOS

I. DIRUAREN NONDIK NORAKOA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 2 | Gast. ondas. arrunt eta zerb. | 10.500,00 |
| Guztira gehikuntzen adina | | 10.500,00 |

I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Capit | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 2 | Gtos. en B. corrient. y serv. | 10.500,00 |
| Total igual a los aumentos | | 10.500,00 |

II. KREDITUEN GEHIKUNTZA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 2 | Gast. ondas. arrunt eta zerb. | 10.500,00 |
| Kredituen Gehikuntza guztira | | 10.500,00 |

II. CRÉDITOS EN AUMENTO

| Capit | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 2 | Gtos. en B. corrient. y serv. | 10.500,00 |
| Total Créditos en aumento | | 10.500,00 |

Eibarren emana, bi mila eta hamalauko azaroaren hamarrean.

Dado en Eibar a diez de noviembre de dos mil catorce.

ALKATEAK,
Miguel de los Toyos Nazabal."

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

"ALKATETZAREN DEKRETUA

2014KO UDAL AURREKONTUKO KONTU SAILEN ARTEKO TRANSFERENTZIEN HAMAZAZPIGARREN ESPEDIENTEA

"Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 29. artikuluak dioenari jarraituz, ondoren aipatzen diren kontzeptuei dagozkien gastuak egiteko beharra eta premia dagoenez, eta 2014. urteko udal aurrekontuaren kontu-sailetan izendatutako kredituak urri geratu direnez,

HAUXE ERABAKI DUT

Udal Aurrekontuko Kreditu transferentzien Hamazazpigarren espedientea onartzea ondoren aipatzen diren zenbatekoetan:

EL ALCALDE,
Miguel de los Toyos Nazabal."

El Pleno se da por enterado.

"DECRETO DE ALCALDIA

DECIMOSEPTIMO EXPEDIENTE DE TRANSFERENCIAS DE CREDITO DEL PRESUPUESTO MUNICIPAL 2014.

"De conformidad con lo dispuesto en el artículo 29 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y considerando la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que a continuación se detallan, al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto Municipal para el Ejercicio 2014,

RESUELVO

la aprobación del Decimoséptimo Expediente de Transferencias de Créditos del Presupuesto, cifrado en las

LABURPENA KAPITULUKA

I. DIRUAREN NONDIK NORAKOA

| Kap Izendapena | Euroak |
|---|---|
| 4 Transferentzia arruntak. | 13.800,00 |
| Guztira gehikuntzen adina | 13.800,00 |

II. KREDITUEN GEHIKUNTZA

| Kap Izendapena | Euroak |
|---|---|
| 4 Transferentzia arruntak. | 13.800,00 |
| Kredituen Gehikuntza guztira | 13.800,00 |

Eibarren emana, bi mila eta hamalauko azaroaren hogeita lauan.

ALKATEAK,
Miguel de los Toyos Nazabal."

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

3. ATALA.

Erakunde, Lurralde eta Lege gaietarako

siguientes cantidades:

RESUMEN POR CAPITULOS

I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Capit Denominación | Euros |
|---|---|
| 4 Transferencias corrientes. | 13.800,00 |
| Total igual a los aumentos | 13.800,00 |

II. CRÉDITOS EN AUMENTO

| Capit Denominación | Euros |
|---|---|
| 4 Transferencias corrientes | 13.800,00 |
| Total Créditos en aumento | 13.800,00 |

Dado en Eibar a veinticuatro de noviembre de dos mil catorce.

EL ALCALDE,
Miguel de los Toyos Nazabal."

El Pleno se da por enterado.

PUNTO 3º

De la Comisión de Trabajo de Asuntos

Lan Batzordetik.

Institucionales, Jurídicos y Territoriales.

1.- Kultura batzorde aholkulariak egiten duen proposamena Arrateko Aterpetxearen erabilerarako eta funtzionamendurako Erregelamendua onartzeko.

1.- Propuesta de la Comisión Asesora de Cultura de aprobación de Reglamento de uso y funcionamiento de la Colonia de Arrate.

Honako diktamen hau irakurri da:

Se da lectura al siguiente dictamen:

"Kultura batzorde aholkulariak egin duen proposamenaren berri eman da, Arrateko Aterpetxearen erabilerarako eta funtzionamendurako Erregelamendua onartzekoa.

"Se da cuenta de la propuesta de la Comisión de Cultura sobre aprobación del Reglamento de uso y funcionamiento de la Colonia de Arrate.

Idazkari Nagusiak dio testu hori José Luis González Kultura zuzendariak egin eta gero berak errebisatu duela.

La Secretaria General manifiesta que el texto ha sido redactado por el Técnico de Cultura D. José Luis González y posteriormente revisado por ella misma.

Elkar iritziak eman ondoren, bertaratu diren jaun/andreen aldeko botoekin, Abanzabalegui eta Lamarain andreen abstentzioa izan ezik, udalbatzari, proposamen hau egin zaio:

Tras un cambio de impresiones, con los votos favorables de los señores y señoras asistentes excepto las abstenciones de las Sras. Abanzabalegui y Lamarain, se acuerda proponer al Pleno Municipal:

AURRENA: Hasierako ONESPENA EMATEA Arrateko Aterpetxearen erabilerarako eta funtzionamendurako Erregelamenduari.

PRIMERO: APROBAR inicialmente el Reglamento de uso y funcionamiento de la Colonia de Arrate.

BIGARRENA: Jendaurreko informazio aldirako hogeita hamar eguneko epea IREKITZEA Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49. artikuluak dioena aplikatuta, bidezkoak irizten diren erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

SEGUNDO: ABRIR un período de treinta días para información pública a los efectos de presentación de las reclamaciones y sugerencias procedentes, en aplicación del artículo 49 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Epe horren barruan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, Erregelamendu hori behin betiko onartutzat emango da eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen legearen 70.2 artikuluak ezarritakoaren arabera sartuko da indarrean, hau da: argitaratu eta hamabost egunera.

En el caso de que en dicho plazo no se hubiera presentado reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente aprobado el mencionado Reglamento que entrará en vigor conforme a lo dispuesto en el art. 70.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, a los quince días de su publicación.

Erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztuz gero, Udal osoko bilkurak ebatziko ditu."

Caso de presentarse reclamaciones o sugerencias, las mismas serán resueltas por el Pleno Municipal."

Aurreko diktamena botazioan jarrita, etorri diren guztiek aho batez ontzat eman dute.

Sometido a votación el precedente dictamen, se aprueba por unanimidad de los/as Sres/as. Asistentes.

<u>2.- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak (Kontsortzioa) egindako proposamena, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko Erregelamenduari</u>

<u>2.- Propuesta de la Autoridad Territorial de Transporte de Gipuzkoa (Consorcio) de aprobación inicial de un Reglamento de armonización de los servicios públicos regulares de transporte de</u>

hasierako onespena ematekoa eta, udalak GLLaren alde hainbat jardueratan kudeaketa-gomendioa egitea.

Honako diktamen hau irakurri da:

“Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Asanblea Orokorrak hala proposatuta, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko Erregelamenduaren berri eman da, eta baita udal honek GLLaren alde egindako kudeaketa-gomendioarena ere.

Asanblea horrek beste atal batzuk onartzeko proposamena egin du Erregelamenduari dagokionez.

Udal idazkari nagusiak 2014ko azaroaren 11ko data duen txostena egin du.

Elkar iritziak eman ondoren, aho batez, udal osoko bilkurari proposamen hau egin zaio:

ERABAKIA

2013ko martxoaren 4an, Gipuzkoako lurraldeko tarifa-sistema bateratua ezarri zen, eta horretarako abiapuntua txartel bakarraren eredua eta oinarri teknologikoa

personas viajeras por carretera y de encomienda de gestión a su favor de diversas actividades.

Se da lectura al siguiente dictamen:

“Se da cuenta del texto de Reglamento de armonización de los servicios públicos regulares de transporte de personas viajeras por carretera y de encomienda de gestión a su favor de diversas actividades propuesto por la Asamblea General de la Autoridad Territorial de Transporte de Gipuzkoa.

Dicha Asamblea propone asimismo la aprobación de otros puntos, en relación al Reglamento.

Se ha emitido informe por la Secretaria General de fecha 11-11-2014.

Tras un cambio de impresiones, se acuerda por unanimidad proponer al Pleno Municipal adopte el siguiente:

ACUERDO

Con fecha de 4 de marzo de 2013 se implantó el Sistema de Integración Tarifaria en el territorio guipuzcoano, partiendo del modelo y de la base

izan ziren, Gipuzkoako Foru Aldundiak LURRALDEBUS marka erabilita arrakastaz garatutakoa.

tecnológica del billete único desarrollado con éxito por la Diputación Foral de Gipuzkoa bajo la marca LURRALDEBUS.

Tarifa-sistema bateratua MUGI txartelaren inguruan dago eratuta; txartelari esker, titularrak bidaiatu dezake sistemari atxikitako edozein garraio-eragilerekin, partekatua den zonifikazio baten arabera, tarifa bateratuak, talde berezi bateratuak eta hobaria duten garraio-aldaketak ahalbidetzeko politikak erabilita.

La Integración Tarifaria pivota sobre la tarjeta MUGI que permite viajar a su titular en cualquier operador adscrito al sistema, conforme a una zonificación común, unas tarifas integradas, unos colectivos especiales integrados y unas políticas de transbordos bonificados.

Gaur egun, tarifa-sistema bateratuari atxikita daude Gipuzkoako Foru Aldundiaren emakida duten garraio-eragileak, LURRALDEBUS markaren barruan elkartuta, Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Arrasate, Zarautz eta Hernani udalerrietako hiri-barneko autobusak eta Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SA, eta, horiez gain, RENFE trenbideko garraio-eragilea eta Oiartzungo hiri-barneko autobusa. Azken bi horietan, erabiltzaileek tarifa-sistema bateratua erabil dezakete garraio-zerbitzua erabiltzeko ordainketa-baliabide moduan.

Actualmente están adheridos al Sistema de Integración Tarifaria los operadores concesionarios de la Diputación Foral de Gipuzkoa, agrupados bajo la marca LURRALDEBUS y los autobuses urbanos de Donostia/San Sebastián, Irun, Errenteria, Eibar, Arrasate-Mondragón, Zarautz y Hernani, Eusko Trenbideak- Ferrocarriles Vascos, SA, además del operador ferroviario RENFE y el autobús urbano de Oiartzun, en los que la tarjeta del sistema de integración tarifaria puede ser utilizada por las personas usuarias como medio de pago para acceder al servicio de transporte.

Tarifa bateratuaren bidez lortu nahi diren helburuak honako hauek dira: Gipuzkoako garraio publiko kolektiboa erabiltzaile guztientzat erakargarriagoa den sistema

Los objetivos que se pretenden alcanzar con la integración tarifaria son la contribución a posicionar el transporte público colectivo guipuzcoano como un

bihurtzea, erraz ulertzeko moduko eta erabiltzaileek onartutako printzipioetan oinarritutako tarifa-sistema bat ezartzea, eta garraio publiko kolektiboaren sistema sare bateratu moduan hautematea, horren guztiaren xede nagusia, iraunkorragoa den eta ibilgailu pribatuaren mendekotasun txikiagoa duen mugikortasuna sustatzea izanik.

Tarifa bateratuaren ondorioa den Gipuzkoako bidaiarien garraio publikoaren esparru berrian egiaztatu ahal izan da beharrezkoa dela zerbitzua arautzen duten arauak onartzea eta egokitu edo aldatzea, gipuzkoar guztiek eskubide eta betebehar berak izan ditzaten, garraioaren eskumena norena den edo zerbitzua nork ematen duen alde batera utzita. Halaber, zerbitzua ematen duten garraio-eragile guztiek zerbitzu hori emango dute arau-esparru bakar baten barruan. Partekatutako arau-esparru horrek garraio-eragileak diren enpresen betebeharrak ezarriko ditu, eta orain arte araudirik ez zegoelako edo izatezko hipotesi batzuk ez aurreikusteagatik zeuden hutsuneak konpondu egingo ditu, eta zerbitzua emateko orduan behar den segurtasun juridikoa emango die eragileei.

sistema más atractivo para las personas usuarias y la percepción del sistema de transporte público colectivo como una red integrada, todo ello destinado primordialmente al fomento de una movilidad más sostenible y menos dependiente del vehículo privado.

Del nuevo escenario del transporte público derivado de la integración tarifaria, se constata que resulta necesaria la aprobación y adaptación o modificación de las normas por las cuales se rige el servicio, de forma que los guipuzcoanos y guipuzcoanas sean titulares de derechos y obligaciones idénticos, independientemente de quien sea titular de la competencia en transporte o quien preste el servicio. Igualmente, los diversos operadores de transportes prestarán el servicio bajo la cobertura de un único marco normativo. Este marco normativo común establece las obligaciones de las empresas operadoras de transportes, resolviendo las lagunas existentes hasta la fecha por la ausencia de reglamentación o previsión de algunos supuestos de hecho, y proporcionándoles la necesaria seguridad jurídica en la prestación del servicio.

Araudi hau oinarrituta dago Gipuzkoako Lurralde Historikoko taldeko garraio publikoaren tarifa-sistema bateratua ezartzeko 2013ko martxoaren 3an Eibarko udalak sinatutako lankidetza hitzarmenean; bertan, berariaz xedatzen da Eibarko udalak konpromisoa onartzen duela Gipuzkoako Lurralde Historikoko bidaiaren garraio publikoko zerbitzua arautzen duen araudia harmonizatzeko egokiak diren jarduerak hasteko.

El Reglamento encuentra su fundamento en convenio de colaboración para la implantación del Sistema de Integración Tarifaria en el transporte público colectivo del Territorio Histórico de Gipuzkoa suscrito por este Ayuntamiento de Eibar con fecha 25-3-2013 el cual establece expresamente que este Ayuntamiento de Eibar se compromete a iniciar las actuaciones que resulten pertinentes para armonizar la normativa que rige en el servicio de transporte público de viajeros del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2014ko azaroaren 6an, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Asanblada Orokorrak aho batez onartu zuen Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamendu proposamena eta berau bidaltzea kontsorzioratutako udalei, barne-izapideak edo tramiteak abian jarri eta onartua izateko.

Con fecha de 6 de noviembre de 2014 la Asamblea General de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa acordó por unanimidad aprobar la propuesta de Reglamento de armonización de los servicios públicos regulares de transporte de personas viajeras por carretera en el ámbito de las Administraciones guipuzcoanas integradas en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa y su remisión a los Ayuntamientos consorciados para su tramitación interna y posterior aprobación.

Hau guztia dela eta, Eibarko Udaleko Udalbatzari dagokio, bere eskuduntza eta lurralde esparruan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko

Por todo lo expuesto, procede aprobar por el Pleno de este Ayuntamiento de Eibar dentro del su ámbito competencial y demarcación geográfica, el

erregularrak harmonizatzeko erregelamendua onartzea, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan.

Reglamento de armonización de los servicios públicos regulares de transporte de personas viajeras por carretera en el ámbito de las Administraciones guipuzcoanas integradas en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa

Erregelamenduaren xedea da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen titulartasunekoak diren bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularra ematea era bateratu eta homogeneoan arautzea.

El referido Reglamento tiene por objeto regular de forma unitaria y homogénea la prestación del servicio público de transporte regular de personas viajeras por carretera de uso general titularidad de las Administraciones Públicas guipuzcoanas integradas en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa.

Erregelamendua aplikagarria izango zaie garraio publikoko zerbitzua erabiltzen duten pertsonei eta zerbitzua ematen duten garraio-eragileei.

El reglamento será de aplicación a las personas que utilicen y a los operadores que presten el servicio de transporte público.

Erregelamendua idazteko prozesuan, zuzenean eraginda dauden taldeek hartu dute parte.

En el proceso de elaboración del reglamento han participado los colectivos directamente afectados.

2014ko azaroaren 11n Erregelamenduaren alderdi juridikoei buruzko txostena egin du udal honetako Idazkari nagusiak.

La secretaria General del Ayuntamiento ha emitido informe sobre los aspectos jurídicos del Reglamento con fecha de 11 de noviembre de 2014.

Horiek horrela, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak egindako proposamena eta, 2014ko azaroaren 17ko

Vista la propuesta realizada por la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa, así como la propuesta de la

Erakunde, Lurralde eta lege-gaietarako lan batzordeak egindako proposamena ikusita, Udalbatzari, aho batez, erabaki hau hartzeko proposamena egiten zaio:

comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales de 17-11-2014 se propone por unanimidad al Pleno del Ayuntamiento

ERABAKI DEZALA:

ACUERDE

Aurrena.- Hasierako onespena ematea, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamenduari, Eibarko Udal honetako eskuduntza eta lurralde esparruan.

Primero.- Aprobar con carácter inicial el Reglamento de armonización de los servicios públicos regulares de transporte de personas viajeras por carretera en el ámbito de las Administraciones guipuzcoanas integradas en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa en el ámbito competencial y demarcación geográfica de este Ayuntamiento de Eibar.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean uztea 30 lanegunez, egin nahi diren iradokizunak aurkeztu ahal daitezen. Jendaurreko informazio-izapide edo tramite hori jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan nahiz web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Segundo.- Someter el expediente a información pública por un plazo de 30 días hábiles, para la formulación de las observaciones que se estimen oportunas. El trámite de información pública se dará a conocer mediante anuncio en el tablón de edictos y página web del Ayuntamiento y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Hirugarrena.- Onartzea, alegazioak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren baitan erregelamendu proposamena landu duen lan-taldeak

Tercero.- Aceptar que las alegaciones sean informadas en el seno de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa por el comité de expertos que

modu bateratuan informatzea.

ha elaborado la propuesta de reglamento armonizado.

Laugarrena.- 2014ko abenduaren 4ko datarekin, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamenduaren hasierako onarpenaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera bidaltzea aldizkarian argitara dadin.

Cuarto.- Remitir con fecha de 4 de diciembre de 2014 el anuncio de aprobación inicial del Reglamento de armonización de los servicios públicos regulares de transporte de personas viajeras por carretera en el ámbito de las Administraciones guipuzcoanas integradas en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa para su publicación al Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Bosgarrena.- Alegaziorik aurkeztu ezean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamendua behin betiko onartutzat joko da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

Quinto.- De no presentarse alegaciones, el Reglamento de armonización de los servicios públicos regulares de transporte de personas viajeras por carretera en el ámbito de las Administraciones guipuzcoanas integradas en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa se considerará aprobado definitivamente sin necesidad de un nuevo acuerdo expreso, si bien para su entrada en vigor deberá publicarse el texto íntegro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Seigarrena.- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan,

Sexto.- Una vez aprobado definitivamente el Reglamento de armonización de los servicios públicos

bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko Erregelamendua behin betiko onartu ondoren:

regulares de transporte de personas viajeras por carretera en el ámbito de las Administraciones guipuzcoanas integradas en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa,

a) Indargabetuta geratuko da Eibarko udalerriko bidaiaren herri barruko garraioa arautzeko Erregelamendua, 2008ko azaroaren 11ko 218. zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua.

a) Quedará derogado el Reglamento Regulador de Transporte Urbano de Viajeros del Municipio de Eibar, publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 218 de 12-11-2008.

b) Garraio-zerbitzuaren tarifa-erregulazioa egokitzea, Ordenantza Fiskaletan aparteko errekargua arautzeko.

b) Adaptar la regulación tarifaria del servicio de transporte al objeto de regular el recargo extraordinario en las Ordenanzas Fiscales.

c) Indarrean dagoen bidaiarien hiriko garraio-zerbitzu publikoaren emakidaren kontratua aldatzea erregelamendura egokitzeko.

c) Modificar el contrato de la concesión de transporte público urbano de viajeros en vigor al objeto de adaptarlo al Reglamento de armonización.

d) Eusko Trenbideak, SA, emakidadun enpresari jakinaraztea harmonizazio-erregelamenduaren onarpena eta indarrean sartzeko data edo eguna, berau zabaltzeko eta emakidadunaren barne-araudiak araudi bateratuak ezarritakoa urratu edo hautsi ez dezan.

d) Comunicar a las empresa concesionaria Eusko Trenbideak SA la aprobación y fecha de entrada en vigor del Reglamento de armonización, al objeto de su difusión y de que los eventuales reglamentos internos de la concesionaria no contravengan lo estipulado en aquel.

e) Onartzea udalak GGLAren alde egindako kudeaketa-gomendioa ondorengo jardueretan:

e) Aprobar la encomienda de gestión de las siguientes actividades en favor de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa:

I. Harmonizazio Erregelamenduan aurreikusitako tarifa-izaerako aparteko errekargua kobratzeko izapideetan.

I Tramitación del cobro del recargo extraordinario de carácter tarifario previsto en el Reglamento de armonización.

II. Irisgarritasun unibertsala behar bezala betetzeko zaintza-lanetan.

II Velar por el cumplimiento de la accesibilidad universal.

III. Ibilgailuetako soinudun mekanismoak aktibatzeko beharrezkoak diren mandoen erosketan eta banaketan.

III Compra y distribución de mandos a distancia necesarios para activar los mecanismos de accesibilidad sonoros en los vehículos.

IV Harmonizazio-erregelamenduan jasotako arau-urratzeek eragindako zehapen-espedienteen izapidetzea edo tramitazioa.

IV Tramitación de los expedientes sancionadores derivados de la comisión de infracciones tipificadas en el Reglamento de armonización.

f) Emakida-kontratu berrietan harmonizazio-erregelamendua derrigorrez betetzeko beharra jasotzea.

f) Incluir la obligatoriedad del cumplimiento del Reglamento de armonización en los nuevos contratos de concesiones.

g) Ez eguneratzea aparteko errekarguaren zenbatekoa GGLAko Batzar Orokorrarekin bat etorri gabe.

g) No actualizar el importe del recargo extraordinario de carácter tarifario al margen de la Asamblea General de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa.

h) Harmonizazio Erregelamenduaren aldaketak onartzea, soilik GGLAren Batzar Orokorrak aurrez hala erabaki badu.

h) Aprobar modificaciones del Reglamento de armonización únicamente previo acuerdo de la Asamblea General de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa.

i) Udalbatzak harmonizazio Erregelamenduaren behin betiko onarpenari buruz erabakitakoa Gipuzkoako Garraioaren Lurralde

i) Comunicar a la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa el acuerdo plenario por el que se acuerda la aprobación definitiva del Reglamento de

Agintaritzari jakinaraztea, hain zuzen ere, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko Erregelamendua deritzonarena.

armonización de los servicios públicos regulares de transporte de personas viajeras por carretera en el ámbito de las Administraciones guipuzcoanas integradas en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa al día siguiente del mismo."

Aurreko diktamena botazioan jarrita, etorri diren guztiek aho batez ontzat eman dute.

Sometido a votación el precedente dictamen, se aprueba por unanimidad de los/as Sres/as. asistentes.

3.- Euskararen normalizaziorako Euskararen sustapenerako Ekintza Plana. Eibarren euskara normalizatzeko Plan Estrategikoa (2014-2017) onartzeko Euskara batzorde aholkulariak egin duen proposamena.

3.- Propuesta de la Comisión Asesora de Euskara de aprobación de Plan Estratégico para la normalización del euskera en Eibar 2014-2017.

Honako diktamen hau irakurri da:

Se da lectura al siguiente dictamen:

"Ikusita, Euskara batzorde aholkulariak, *Euskararen sustapenerako Ekintza Plana. Eibarren euskara normalizatzeko Plan Estrategikoa (2014-2017)* onartzeko egin duen proposamena, udalbatzari, etorritako jaun/andreen aldeko botoekin -Abanzabalegui, Lamarain eta Juez andrearen abstentzioa izan ezik- proposamen hau egin zaio:

"Vista la propuesta de la comisión Asesora de Euskara de Plan de Acción para la promoción del euskara. Plan Estratégico 2014-2017, con el voto favorable de los señores y señoras asistentes excepto la abstención de las Sras. Abanzabalegui, Lamarain y Juez, se propone al Pleno Municipal:

ONAR DEZALA Euskararen sustapenerako Ekintza Plana. Eibarren euskara normalizatzeko Plan Estrategikoa (2014-2017)."

APRUEBE el Plan de Acción para la promoción del euskara. Plan Estratégico 2014-2017."

Aurrenik, Lamarain andreak hartu du hitza. Esaten du ona izango litzatekeela gogoratzea Plan Estrategiko hau "Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Orokorra"ren jarraipena dela, beste izen bat eduki arren.
2003. urtean onartu zen -dio Lamarain andreak- Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana, eta kontuan hartu behar da 2000. urtean Eibarrek zuen euskararen erabilera % 29 ingurukoa zela, 2003 urtean bertan % 22koa eta, datuek dioskutenez, urtez urte jaitsi da erabilera % 20raino iritsi arte. Hortaz, datuek dioskutena da 2014. urtean portzentajea % 20,1ekoa dela eta 2013. urtean % 20,5ekoa.
Segitu du esaten datu horien aurrean, Udalak, eta batik bat bertako gobernu-taldeak, benetako balorazio bat egin behar duela eta datuok aztertu.

Interviene en primer lugar la señora Lamarian quien afirma que estaría bien recordar que este Plan Estratégico es una continuación del "Plan General de Promoción del Uso del Euskera", aunque tenga otro nombre.
En el año 2003, continúa, se aprobó el Plan de Promoción del Uso del Euskera y hay que tener en cuenta que en el año 2000 la utilización de euskera en Eibar era alrededor del 29%, en el propio año 2003 era del 22% y los datos nos dicen que año tras año se baja hasta volver* al 20%, y así los datos nos dicen que en el año 2014 el porcentaje es del 20,1% y en el 2013 del 20,5%.
Prosigue afirmando que ante estos datos, el Ayuntamiento y especialmente su equipo de gobierno, tienen que hacer una valoración sincera y tiene que hacer un análisis de los mismos.

Geroxeago dio, berak aitortzen duela, asko izan daitezkeela euskararen erabileran izandako jaitsiera horren faktoreak baina Udalak baduela bere erantzukizuna, badakielako nolakoak diren

Dice más adelante que reconoce que los factores en esta bajada de la utilización del euskera pueden ser varios, pero que el Ayuntamiento tiene su responsabilidad, porque conoce la

euskararen ezagutza eta euskararen erabilera eta horien artean dagoen aldea, euskaldunak eta ia-euskaldunak batuta % 60tik % 70era bitartekoak direlako eta euskara erabiltzen dutenak ostera % 2O: Udalak du datu horiei buelta emateko erantzukizuna.

Lamarain andreak dio bere Taldeak garbi duela euskaraz biziko den Eibar bat nahi duela, baina horretarako Udalaren hizkuntza-politika zehaztu behar da, etorkizunean, epe luzera, zer nahi den garbi edukitzeko eta, ahal bada, denen adostasunez edo akordioz.

Gaineratzen du diagnostiko on bat eduki behar dela, beste jardun-eremu batzuetan plan estrategikoez hitz egiten denean, diagnostiko baten inguruan hitz egin eta diagnostiko on bat egiten delako.

Kale-neurketa batzuk badaude baina horrekin ez da nahikoa, dio Lamarain andreak; esaten du datu gehiago eduki behar direla; diagnostikoa askoz sakonagoa izan behar dela.

Eta diagnostiko hori eskuratzen denean Plan Estrategiko bat egin behar da ganoraz, eta horrek jasoko ditu lehen aipatutako hizkuntza-politikak zehaztu duen helburura iristeko epe ertaineko helburuak, helburu argiak izango direnak.

Geroxeago dio dokumentuak euskara

utilización y el conocimiento del euskera, y la diferencia entre ambos, pues los euskaldunes y casi euskaldunes suman entre 60 y 70% y los que lo utilizan son alrededor del 20%, y que el Ayuntamiento tiene la responsabilidad de dar la vuelta a estos datos.

Su grupo tiene claro, prosigue, que desea un Eibar en el que se viva en euskera, pero para ello hay que definir la política lingüística del Ayuntamiento, para tener claro lo que se desea para el futuro, a largo plazo, y a ser posible, con el acuerdo de todos.

Añade que hay que disponer de un buen diagnóstico, pues cuando se habla de planes estratégicos en otros ámbitos se habla de un diagnóstico, y se hace un buen diagnóstico.

Se disponen de unas mediciones a pie de calle, prosigue, pero indica que eso no es suficiente, sino que hay que disponer de más datos y el diagnóstico tiene que ser más profundo.

Y una vez se tenga ese diagnóstico, continúa, hay que hacer un Plan estratégico con fundamento, el cual recoja los objetivos a medio plazo para llegar al objetivo definido en la mencionada política lingüística, y que estos objetivos tienen que ser claros.

Dice más adelante que en el documento

sustatu behar dela, kirol arloan bermatu behar dela, neurriak hartu behar direla, eta abar jasotzen duela, baina ez du jasotzen ez helburu argirik, eta ezta eperik ere. Gainera uste dute prozesu hau hiritarrekin batera egin behar dela, eta batik bat euskalgintza munduarekin eta hezkuntza alorreko eragileekin.

Baina hori dena egiteko, darraio, baliabideak eta bitartekoak behar dira beste plan estrategiko batzuk duten bezala. Gainera, beharrezkoa da kanpoko enpresa bat kontratatzea.

Geroxeago dio Lamarain andreak, uste bada euskara estrategikoa dela eta lehenetsi egin behar dela horretarako baliabideak eta bitartekoak ipini behar direla, eta gobernu-taldearen konpromisoa behar da.

Segitu du esaten beraiek ez diotela baietzik emango dokumentu honi, beraien iritziz plan estrategiko bat izatetik urrun dagoelako, eta Euskara batzordean ohartеman zutenean hau ez zela plan estrategiko bat, Eusko Jaurlaritzaren laguntzak jasotzeko beharrezkoa den dokumentu bat dela esan zitzaiela, eta egingo zela Plan Estrategiko bat, ganoraz. Hala ere, ordutik hona ia bi hile igaro direla eta oraindik ez dutela inongo proposamenik ikusi, ezta horren inguruko

se recoge que hay que fomentar el euskera, que hay que garantizarlo en los deportes, que hay que adoptar medidas etc., pero que no recoge ni objetivos claros, ni plazos; y que piensan además que este proceso hay que hacerlo con los ciudadanos, y sobre todo con la "euskalgintza" y los agentes de educación.

Pero para todo esto, continúa, se precisan de medios y recursos, tal como disponen otros planes estratégicos, y además es necesario contratar a una empresa externa.

Si se piensa que el euskera es estratégico y que hay que darle prioridad, dice más adelante, hay que poner los medios y los recursos y se precisa el compromiso del equipo de gobierno en ello.

Sigue afirmando que no van a apoyar este documento porque consideran que está muy lejos de ser un plan estratégico, y que cuando advirtieron en la Comisión de Euskara que esto no es un Plan estratégico, se les dijo que era un documento necesario para percibir las subvenciones del Gobierno Vasco y que se haría un Plan estratégico con fundamento, pero que han pasado casi dos meses y no han visto ninguna propuesta, ni calendario al respecto.

egutegirik ere.

Amaitzeko, Lamarain andreak esan du esandako guztiak kontuan hartuta bere Taldea abstenitu egingo dela eta, era berean, gobernu-taldearen konpromisoa eskatzen dela plan estrategiko bat diseinatzeko.

Finaliza afirmando que por todo lo indicado su Grupo se va a abstener, a la vez que solicita el compromiso del equipo de gobierno para diseñar un plan estratégico.

Ondoren Juez andreak hartu du hitza. Esaten du bere Taldea euskararen alde egiten diren gauza guztien alde dagoela, baina, aldi berean, oso kezkatuta daudela baita euskararen erabilerari eta ezagutzari buruzko datuak ikustean; beraz, beraien iritziz, neurriak hartu behar dira, baina neurri argiagoak.

Interviene a continuación la señora Juez quien afirma que su Grupo está a favor de todo lo que se haga en pro del euskera, pero que también están muy preocupados ante los datos que aparecen en lo referente a la utilización, y al conocimiento del euskera, por lo que consideran que hay que adoptar medidas, pero medidas más claras.

Gaineratzen du plan estrategiko bat erreminta egokia dela eta euskara sustatu eta indartu nahi duen udal batendako beharrezkoa. Hala ere, beraien iritziz, Plan Estrategiko hau ez da ondo aztertu, beraiei behintzat azken orduan eta presaka aurkeztu zitzaien, eta hain garrantzizkoa den hau bezalako erreminta bat onartzeko lan asko egin behar dela.

Añade que un plan estratégico es una herramienta adecuada y que es necesario para un Ayuntamiento que desee promover y reforzar el euskera; pero que consideran que este Plan estratégico no se ha analizado bien, al menos a ellos se les presentó en el último momento y con prisas; y que hay que hacer un gran trabajo para aprobar una herramienta tan importante como ésta.

Segitu du esaten datorren abenduaren 3an dela Euskararen Eguna eta jardueraz

Prosigue afirmando que el próximo día 3 de diciembre es el día del euskera* y

eta ekitaldiz betetako egun bat izango dela, baina beraiek uste dutena da urteak 365 egun dituela eta euskarak udalaren ahalegina merezi duela 365 egun horietan guztietan.

que será un día lleno de actividades, pero que piensan que el año tiene 365 días y que el euskera merece el esfuerzo del Ayuntamiento durante estos 365 días.

Juez andreak dio geroxeago plan estrategikoa erreminta garrantzitsua dela baina oraingo Plan hau motz geratu dela, teorian oinarritzen delako eta hortik praktikara igaro beharra dago.

Dice más adelante que el Plan estratégico es una herramienta importante, pero que este Plan se queda corto, pues se basa en la teoría, y hay que pasar a la práctica.

Gaineratzen du Lamarain andreak eman dituen datuak benetan kezkagarriak direla eta datu horien aurrean denek egon behar dutela adi eta erne.

Añade que los datos que ha dado la señora Lamarain son verdaderamente preocupantes y todos deben de estar alerta ante ellos.

Amaitzeko esan du bere Taldearen botoa ere abstentzioa izango dela, baina euskara maite dutela azpimarratu nahi du, euskararen alde daudela eta ahalegin handiago bat egin behar dela Plan Estrategiko sendoago bat egiteko.

Finaliza diciendo que el voto de su Grupo será también el de la abstención, resaltando que aman el euskera, que está a favor del euskera y que hay que hacer un esfuerzo mayor para disponer de un Plan Estratégico más contundente.

Ondoren Kareaga andreak hartu du hitza. Hasteko esaten du udalak, 2003. eta 2010. urteen artean Euskara batzordea zuela Plan Estrategikoren jarraipena egiteko eta orduko Euskara Batzordeak hainbat eragile bildu zituela: enpresak, kultura eta kirol elkarteak, ikastetxeak, dendak eta alderdi politikoen eta

Interviene a continuación la Sra. Kareaga y comienza diciendo que el Ayuntamiento entre el año 2003 y 2010 tuvo su propia comisión de euskera*** para hacer un seguimiento del Plan estratégico y que esta Comisión de Euskera reunió a numerosos agentes como empresas, asociaciones culturales

sindikatuen ordezkariak.

y deportivas, centros escolares, comercios y representantes de partidos políticos y sindicatos.

Orain, 2014. urtean, Eusko Jaurlaritzak berak finkatu ditu udal plan estrategikoen jarraibideak eta udaletara helarazi ditu. Plan hau Eusko Jaurlaritzak diseinatu duen marko horretara egokituta egin da. Gaineratzen du Plan horretan azaltzen direla landu behar diren helburu nagusiak, Euskara sailak diseinatutako jarduerekin eratu eta osatzen direnak.

Ahora en el 2014, continúa, el Gobierno Vasco ha marcado las directrices de los planes estratégicos municipales y los ha hecho llegar a los ayuntamientos, y este Plan se hace adecuándolo al marco diseñado por el Gobierno Vasco. Añade que en ese Plan figuran los objetivos principales sobre los que hay que trabajar y que lo conforman las actuaciones diseñadas por el Departamento de Euskera.

